AEK – KORRIKAren mezua mundu osoko KORRIKAren lagunei

24. KORRIKAk hizkuntza-komunitatea ekarri nahi du lehen lerrora. Hizkuntza gutxituek gero eta erronka handiagoa dute hiztunak zein hitz egiteko espazioak eskuratzeko edo orain artekoei eusteko; horregatik, ezinbestekoa da komunitatearen pertenentzia —identitatea— hizkuntzarekin izaniko gozamenezko bizi-esperientziei lotzea.

Horrelakoak dira Korrika eta hura bezalako ekimenak: hiztunen komunitatearen emozio-leherketa, herri-aldarri alai eta tinkoa; batzuentzat ahalduntze-bidea, askorentzat euskarara hurbiltzeko era.

Hauxe da, hain zuzen ere, AEKren xedea: Euskal Herriko biztanle guztiak euskaraz eroso bizitzea, eta egoera berbera nahi luke munduko hizkuntza gutxiagotu guztientzat.

Xede hori AEKk bere egin zuen bere garaian, 2021eko **Batuz Aldatu*** izeneko ekimenean oinarrituta.

AEK-KORRIKAk mezu hau zabaldu nahi du munduko bazter guztietan, eta, horri begira, ahalik eta lengoaia gutxiagotu gehienetara itzuli gura dugu. Beraz, horra hor erronka mundu osoko KORRIKA lagunontzat:

ITZULI BEHEKO TESTUA zuen inguruko hizkuntza gutxiagotuetan eta GRABATU BIDEO LABUR BATEAN, guk geure web-orrian txerta dezagun, eta hortik sareetan non-nahi heda dadin.

Hona testua *(itzulpena errazteko, ingelesezko, frantsesezko eta gaztelaniazko bertsioak ere badituzue eskuragarri)*

*Hizkuntza hegemonikoetan egindako itzulpenak ere jasoko ditugu, baina kasu horietan ez erabili glotonimoak, mantendu **euskara** hitz moduan.*

EUSKARA GARA*
EUSKAL HERRITIK MUNDURA, KORRIKA

Korrikaren 24. edizioak sentiarazi nahi du euskara herritar guzti-guztiontzat aterpe ireki eta erosoa dela. Aldarrikatzen dugu munduko hizkuntza minorizatu guztiak izatea aterpe ireki eta erosoa hiztunentzat. Berdin dio jatorriak, azal-koloreak, gure hizkuntzaren ezagutzak. Garrantzitsuena da guztiontzako lekua dagoela **euskararen*** baitan, eta guztion artean azkenean lortuko dugula gizarteko zapalkuntza orotatik babestuko gaituen komunitate berdinzale eta zabala. Horixe da jendarteari helarazi gura diogun mezua: gure hizkuntza ardatz duen komunitatean eroso eta aske bizi nahi dugula.

Hori horrela izateko, hizkuntza-eskubideak bermatu egin behar dira, eta gure hizkuntzan duintasunez bizi ahal izateko baldintzak bete behar dira. Bazterkeriak alboratu behar dira, egiturazkoak edo legezkoak ez ezik, baita ekonomikoak, sozialak edo kulturalak ere, agerikoak zein inplizituak, bazterkeria horiek hiztun-komunitatearen duintasunaren aurkako erasotzat jotzen baititugu. FINEAN, GURE HIZKUNTZAN BIZITZEKO ESKUBIDEA ALDARRIKATZEN DUGU.

***zuen hizkuntzaren izena jarri**